

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI



Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babestean, Donostian barrutiak sortzeari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, Zerbitzu Orokorren Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urtetik urtera, legegintzaldiz legegintzaldi, 2003ko Toki Administrazioa modernizatzeko Legea sortu zenetik, ez da bete udal administrazioa barrutietan deszentralizatzeko helburua. Herritarren parte hartzea erraztu eta erabakiak batera eta berdintasunez hartzeko gaitasuna ematen du organo horrek, Donostian aurreikusitako lau barrutietatik bakarra sortu baita.

2015eko martxoaren 26an, Donostiako Barrutien Organo Araudia onetsi zen. Araudi horretako Xedapen Gehigarrian aurreikustenenez, Ekialdeko Barrutia abiaraziko zen legegintzaldia bukatu baino lehen, eta gainerakoak 2015-2019 legegintzaldian abiaraziko ziren. Ekialdeko Barrutiaren kasuan, aurreikuspen hori 2018ko irailean bete zen.

la 5 urte igaro dira onespenez hura egin zenetik, eta 16 urte Hiri Handien Legea sortu zenetik – udal kudeaketa modernizatzea aurreikusten zen, udalerria barrutietan banatuta–, baina Donostiako hiritarretatik, Ekialdeko auzoetako hiritarrek baino ez dute hurbiltze eta partaidetza politikak sortzeko beharrezkoa den tresna.

Ez da begiztatu ere egiten Udalak gainerako barrutiak -Erdialde-hegoa, Mendebaldea eta Ipar-ekialdea– abiarazteko aurreikuspena. Horixe ondorioztatu ahal izan zen, antza, Gobernuak batzordean egindako iruzkinen batetik.

Geure arauak ere ez ditugunez betetzen -erakunde orotan funtsezko eta lehentasunezko gaia izanik– eta hiritarren konparaziozko bidegabekeria egiten denez, haiek bizi diren tokiaren arabera, Talde Popularrak azaroan aurkeztutako interpelazioaren ondoriozko honako hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udaltzako Udal ~~X~~ Gobernuari eskatzen dio Legean aurreikusitakoa bete dezala eta falta ~~X~~ diren hiru barrutiak sortzen hasi eta Erdialde-hegoa, Mendebaldea eta Ipar-ekialdea barrutiak abian jartzeko epeak eta baliabideak ezarri ditzala.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 23an.

Borja Corominas Fisas,

Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea.